

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Bide Segurtasuneko Nafarroako Estrategia berria hiriguneetan, haur eta gazteengan, laneko joan-etorrietan eta ohiko errepedeetan oinarrituko da

Gaur goizean aurkeztu du Morrás kontseilariak eta 2020 arte arlo horretako Nafarroako Gobernuaren ekintza zehazten du

Viernes, 04 de enero de 2013

Lehendakaritzako, Justiziako eta Barneko kontseilari Javier Morrás Iturmendik [Nafarroaren Bide Segurtasuneko Estrategia](#) berria aurkeztu du gaur goizean prentsurrekoan. Estrategia hori berriki onartu du Foru Gobernuak 2013 eta 2020 urteko arteko aldirako.

Aurkezpenean, Morrás kontseilariak –harekin batera

Barneko zuzendari nagusi Patxi Fernández Elizalde izan da–, herritarren erantzukizun partekatua eskatu du, zirkulazioko istripuak "ez batira Administrazioaren arazo bat gizarte osoarena baizik". Gainera, "erabat ezinbestekotzat" jo du arlo horretako administrazioen eta eragileen arteko elkarlana.

Alde horretatik, Morrás kontseilariak adierazi du estrategia hori egiteko orduan honako hauek parte hartu dutela, Morrásen Departamentuaz gain –Barneko Zuzendaritza Nagusia eta Foruzaingoaren bitartez–: Sustapen Departamentuak, Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasuneko Institutuak, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Lurralde Buruzagitzak eta Guardia Zibilak.



Zubia AP-15ean Ebro ibaiaren gainean, Castejónen.

Estrategiaren helburuak

Ekimen horrekin, Nafarroako Gobernuak erabiltzaileak bide ahulenetatik babestu nahi ditu (haurrak, gazteak, nagusiak, oinezkoak eta txirrindulariak), hiriguneetan mugikortasun segurua sustatu, motorzaleen segurtasuna

handitu, ohiko errepideetako segurtasuna optimizatu, lanari lotutako joan-etorrien segurtasuna handitu eta alkoholari nahiz abiadurari lotutako jokabideak hobetu.

Horretarako 200 jardunbide diseinatu ditu, eta haiek oinarritzen dira, bereziki, bide-segurtasuna hobetzen: hiriguneetan (haietako 54), haurrengan (41), gazteengan (27), lanari lotutako joan-etorrietan (22) eta ohiko errepideetan (21). Barnean sartzen dira ere alkoholari eta drogei (18), motorzaleei (17), abiadurari (15), txirrindulariei (14), oinezkoei (11), adin nagusikoei (11) eta garraiolari profesionalei (8) lotutako esku-hartzeak.

Tipologiaren arabera, jardunbideak eragina dute komunikazioan (55), bide-araudian eta haren betearazpenean (40), hezkuntzan eta prestakuntzan (22), azpiegituretan (27), enpresan eta garraio profesionalean (13), hiriguneetan (13), osasunean eta bide-segurtasunean (7), biktimetan (7), ikerketan eta ezagutzaren kudeaketan (6) eta koordinazio nahiz partaidetzan (6).

13 adierazle zenbagarri eta zientifiko

Bide-segurtasuneko estrategia berriak adierazitako helburuak lortzen direla egiaztatzeko, Nafarroako Gobernuak 13 adierazle zenbagarri eta zientifiko planteatu ditu. Haien artean daude: 2020an zirkulazioko istripuetan izandako hildakoen tasa murriztea, milioi bat biztanleko 37ren azpitik kokatuz (iaz tasa hori 69koa izan zen Nafarroan); zauritu larrien kopurua % 35 murriztea (2012an 65 izan ziren); eta harrapatzeengatik hildakoen kopurua % 30 jaiste (10 2012an).

Beste adierazle batzuk dira, ez dadila haur bat hil haurrei eusteko sistema bat ez erabili izanagatik; auto-gidari bat bera ere ez dadila hil hiriguneetan; ohiko errepidean bidetik ateratzeagatik izandako hildakoen kopurua % 30 murriztea; gidariak diren 18-24 urte arteko hildakoen edo zauritu larrien kopurua % 25 murriztea asteburuan; eta motorzaleak diren erabiltzaileen artean hildako eta zauritu larrien kopurua % 20 murriztea.

Azkenik, egiaztatuko da ere 64 urtetik gorakoen artean hildako gidarien kopurua % 10 gutxitzea; 15.000ra igotzea txirrindularien kopurua haien hilkortasun-tasa igo gabe; ausazko prebentzioko alkoholemia-kontrolatan izandako positiboak % 1 murriztea, eta % 50era gutxitzea abiadura-muga 20 km/h-an gainditzen duten ibilgailu arinen portzentajea.

200 jardunbide jasotzen dira

Nafarroako Bide Segurtasuneko Estrategia 2013-2020ean 200 jardunbide zehatz jasotzen dira. Haien artean nabarmentzen dira, eskola-bide seguruak sustatzea, toki-erakundeekin batera; elkartruckerako sistemak sustatzea eta haurrei eusteko sistemak alokatzea; eta bizikletaz edo motorretan egindako joan-etorrietan segurtasun-neurriak sustatzea

Gainera, aukerako gidariaren eta edale pasiboaren irudia finkatuko da; alkoholdun edariak eta droga



Pirinioetako Autobia (A-21), Izko parean.

toxikoak kontsumitzeagatik zehapen penaletan berriro erortzen direnentzako errehabilitazio-programa bat sortuko da; eta gidatzeko gaitasunari eragin diezaioketen sendagaien ontzien barneko piktogramak zer esan nahi duen zabalduko da. Beste jardunbide aipagarri batzuk dira, zirkulazioko istripuen prebentzioa sartzeari lantokietako lan-arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza-programetan eta bide-segurtasuneko planak sustatzea enpresetan.

Gainera, datozen zazpi urteotan, Nafarroako Gobernuak erantzuteko denbora hobetuko du zirkulazioko istripu bat artatzeko orduan, DGTarekin elkarlanean ariko da biktimentzako arreta-bulegoa sustatzeko garaian eta Nafarroako Bide Segurtasuneko Planaren jarraipen-batzordea sortuko du.

Bide-segurtasuneko aurreko estrategia

Bide-segurtasuneko estrategia berri horrek aurrekoa ordeztzen du. Azken hori Nafarroako Gobernuak onartu zuen 2005ean eta 2012an amaitu da. Indarrean izan den bitartean, zirkulazioko istripuetan hildakoen kopuruak % 48 egin du behera, 87tik 45era pasa da.

Ildo beretik, zauritu larrien kopuruak ere beheranzko joera izan du. Era horretan, eta azken lau urteak erreferentziatzat hartuz, zauritu larrien kopuruan 2009an 102 izan ziren eta 2012an 65 izan dira, hau da, % 36 gutxiago. Halaber, zauritu arinen kopurua % 24 murriztu da; 2009an 571 izan ziren eta 2012an, 432. Aldiz, 2009 eta 2012 artean zirkulazioko istripuen kopuruak % 9 egin du behera, guztira; hala, 3.689 ezbehar izan ziren 2009an, eta hiru urte geroago, berriz, 3.341.

Gogoratu behar da, Nafarroako Bide Segurtasuneko Estrategia 2005-2012aren helburu nagusia zela, 2001 eta 2010 urteen artean zirkulazioko istripuetan izandako hildakoen kopurua % 50 murriztea, garraioen Europako politikari buruzko Liburu Zuriari jarraiki eta Europako Bide Segurtasuneko Ekintza Programaren barnean. Helburu hori 2006an erdietsi zen eta bide-segurtasuneko aurreko strategiaren gainerako indarraldian eutsi zaio.